Getxo
ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA
bizi ezazu

MED
Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 21
Urtea/Año 2014
Otsaila/Febrero

## BA AL ZENEKIEN?

Gure Musika Eskolari izena ematen dion egilea oroitzeko, "Isasi Laukotea" izena duen hari-tresnen laukotea dago Alemanian; laukote honek CDa grabatu du, opus 0 83 zenbakidun eta opus 2 27? zenbakidun kuartetoekin. Musikan espezializatutako aldizkarien kritiko musikalek goraipatu egin dituzte grabaketa hauek, zeinen egile handia izan zen Andrés Isasi gogoratuz.

## Santa Ageda

*Kataniako Santa Ageda, tradizio kristauaren arabera, birjina eta martiria izan zen. Otsailaren 5ean ospatzen da bere eguna.*

*Egun horren bezperan, otsailaren 4an, irteteko ohitura dago herri askotan, santuaren martirio eta heriotza gogoratzen dituzten kantak abesturik errondak egitera. Antzina, soldadutza egiteko adina zuten gazteek ziren elkartu eta atez-ate joaten zirenak, bazkaria edo askaria prestatzeko dirua eta janariak bilduz. Gaur egun, adin guztietako jendez osatutako taldeak, ikastolak eta ikastetxeak dira irteerak antolatzen dituztenak.*

*Anima zaitez eta zatoz gurekin Santa Agedari abestera datorren otsailaren 4an. 17:30ean irtengo gara Musika Eskolatik.*

## VI NEGUKO BIDAIA

Aula Boreal taldeak eta David Salinas eta Claudio Constantini rapsodek eman zioten hasiera VI Neguko Bidaiari aurreko larunbatetan, urtarrilaren 18 eta 25ean. Arrakasta erabatekoa izan da; alde guztietatik etorri dira zorionak: zuengandik, zuen etorrerarekin erantzun paregabea ematen ari zareten eta musika onaz gozatzen ari zareten guraso eta ikasleengandik; eta oso harrera ona egin zaiela sentitu duten eta publikoarekiko hurbiltasuna, beroa erakusten duen kontzertuen formatuarekin poz-pozik dauden interpretatzaileengandik.

Neguko Bidaiak, geure neguko bidaiak, aurrera egingo du otsaileko larunbatetan, arratsaldeko 7:30ean. Musika flamenkoaz gozatu ahal izango dugu (lehen aldiz geure formatu honetan); jazz klasikoaz ere, Noguel Quartet-en eskutik, gure Eskolako irakasle diren Nohemi Ladrón de Guevara eta Miguel Salvadorekin. 15ean jazz-rock fusion-aren unea izango da, Raül vera Group-arekin. Zikloa bukatzeko, bi pianotarako kontzertua izango dugu; honetan, Eskolako irakasle den Pia Rojas entzun ahal izango dugu.
Errezitaldietaz gozatzera animatzen zaituztegu.



### MUSIKA ESKOLA ALGORTAN

Zuetako askok galdetu diguzue dagoeneko. Zabaltzeko data dugu. 2015-16 ikasturtean Algortan ere izango gara. Egoitza berrian, Udaletxea San Nikolas elizaren ondoan eraikitzen ari den ekipamendu kulturalean. Eraikin txikia geu gara, "Andrés Isasi" Musika Eskola. Zentro bakarra izango gara, bi egoitzarekin. Nola antolatuko garen, zenbat plaza izango diren, eta abarren inguruko informazioa jasoko duzue.

## AGENDA

### Otsaila

**Otsailak 1:** VI Neguko Bidaiaren 3. kontzertua. **Flamenkoa: Juanjo Navas, Marco Borge, Tala.** 19:30ean. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 5 €.

**Otsailak 5: Piano-ikasleen errezitaldia:** Getxo Elkartegiko erabilera anitzeko aretoan. 18:00etan. Sarrera doan.

**Otsailak 7: Biolontxelo ikasleen errezitaldia.** "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. 19:00etan. Sarrera doan.

**Otsailak 8:** VI Neguko Bidaiaren 4. kontzertua. **Jazz: Noguel Quartet.** 19:30ean. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 5 €.

**Otsailak 14: Gitarra ikasleen errezitaldia.** "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. 18:30ean. Sarrera doan.

**Otsailak 15:** VI Neguko Bidaiaren 5. kontzertua. **Jazz–rock Fusion: Raül Vera Group.** 19:30ean. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 5 €.

**Otsailak 17: Bertako tresnen kontzertu didaktikoa.** 11:00etan udaleko ikastetxeentzat, eta 17:30ean Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerako entzuleentzat.

**Otsailak 21: Piano ikasleen errezitaldia.** "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. 18:30ean. Sarrera doan.

**Otsailak 22:** VI Neguko Bidaiaren 6. kontzertua. **Piano-bikotea: Pía Rojas, Marian Hermosilla.** 19:30ean. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 5 €.

**Otsailak 27: Piano ikasleen errezitaldia.** "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. 18:30ean. Sarrera doan.

**Otsailak 28: Ikasle helduen errezitaldia.** "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. 18:30ean. Sarrera doan.